Pilota ◆ Irurtzungoa izan zen une oro nagusi, eta min handia egin zuen sakearekin

Nagore, arazorik gabe

Bere lehenengo puntua lortu du, Etxanizi 22-15 irabazita

Enekoitz Telleria / **Donostia**

LAU T'ERDIKO egungo txapelduna da Jorge Nagore. Horri aurka egiteko argudioek sendoak behar dute izan, eta Jokin Etxanizek atzo plazaratutakoak ez ziren sendoak. Titin III.aren kontra ustekabe galanta ematetik zetorren. 10-22 hartu zuen mendean hura, eta, Nagoreren kontrakoa erabat partidu ezberdina zen arren, «estutasun gehiago ematea» espero zuela esan zuen Etxanizek berak partidua amaitutakoan. Gehiago ere horren esperoan joan ziren, agian, Labritera, nahiz eta Etxanizek markagailuan hurbiltzea lortu zuen azken txanpan, Nagore partidutik irten egin zelako pixkat.

Ongi ekin zion partiduari Etxanizek. 5-0 irabazten hasi zen arren, 5-6 aurreratu zen Nagore sakea eta bere pilota hartu zituenean, eta 17-6 aurreratu zen hurrena. Horri buelta ematea ez da inorentzat zeregin erraza. Irurtzungoarena zen ekimena. Primeran mugitu zuen pilota, batetik bestera, luze jokatu eta bukatzen asmatzen zuen. 17-6tik, 17-10, 19-10, 19-12, 21-12 eta 22-15 joan zen markagailua.

Zazpi tanto saketik

Nagorek, beste behin, min handia egin zuen sakearekin. Zazpi sartu zizkion Etxanizi eta, harrigarria badirudi ere, errestoan ibili zen ongien Bergarako aurrelaria. Nagorek tantoa dominatzen hasten duenean ordea...



JOXE LACALLE

Jorge Nagore eta Jokin Etxaniz, atzo Labriten jokatutako partiduan.

Eugi-Unanue, jardunaldiko partida, Eibarren

B MULTZOTIK finalerdietan sartzeko bi hautagai nagusiak dira Patxi Eugi eta Mikel Unanue —Alustiza eta Goñi I.a dira multzo horretako beste biak —. Gainera, uneotan sasoikoen dauden bi pilotariak ere badira, eta elkarren kontra jokatzen ikustea gozamena izan daiteke. Eibarren jokatuko dute Eugik eta Unanuek, gaur, jardunaldiko partidurik interesgarriena.



PABLO S. QUIZA

Unanue Astelenan ariko da gaur, aspaldiko partez.

Gutxi daude lau t'erdian Eugi bezala mugitzen direnak. Arintasunean eta eskuin kolpean oinarritzen du bere jokoa. Unanueren arma, berriz, aire-jokoa da. Errematea bilatuko du aukera duen bakoitzeko.

Logroñon jokatuko da txapelketako beste partida, Inaxio Errandonea Bernarekin. Klasea eta inteligentzia, borrokarako grina eta dohain fisikoen kontra.

Gazteak nagusi Galarretako estelarrean

E. T. / **Donostia**

GARIKOITZ ALTUNAK eta Jokin Etxabek irabazi zuten, atzo, Galarretan jokatutako partidu nagusia (40-36). Imanol Altuna eta Aizpuru izan zituzten kontrario, eta gorabeheraz betetako partidua jokatu zuten. Altunatarren lehian ez zen inor nagusitu, eta biak jokatu zuten maila paretsuan. Ongi aritu ziren laurak, baina Jokin Etxaberen lana da azpimarratu beharrekoa. Txapelketakoa zen partidua, nahiz eta finalerdiak erabakita dauden jada, eta ez zuen sailkapen aldetik interesik. Bigarren estelarrean, 35 tantotan gelditu zen Ezkurra, Txikurirekin, M. Lekunberri-Urreta I.a-Auzmendi hirukoaren kontra.

Euskalen, Matxin-Iriartek irabazi zuten Elizalde-Lizasoren kontra (40-36).

gaurko partiduak

EIBAR. 17:00 (ETB1).
- Titin III.a-Milikua / Olaizola II.a-Hirigoien
- Eugi / Unanue (Lau t'erdiko txapelketa)
- Gonzalez-Iparragirre / Txafee-Matute III.a.

LOGROÑO. 17:00.
- Koka-Imaz / Berasaluze VIII.a-Zearra
- Errandonea / Berna (Lau t'erdiko txapelketa)
- Salaberria-Armendariz / Agirre-Arretxe.

BILAR. 17:00.
- Legorburu-Oregi I.a / Zabala-Badiola I.a.

GALARRETA. 16:00.
- Ziganda-Gaztelu / Perugorria-Iturralde
- Zeberio II.a-Etxabe / Altuna I.a-Iriarte
- Matxin-Txikuri / Iñigo-Auzmendi
- Agirresarobe-Etxebe II.a / Iribarren-Zestau III.a.

EUSKAL. 16:00.
- Brit-Barrenetxea II.a / Esparza-Badiola
- Elizalde-Aizpuru / Altuna II.a-Zubeldia
- M. Lekunberri-A. Lekunberri / Bitoria-Lizaso
- Lezea-Ekiza / Kalonge-Mendizabal.

biharko partiduak

GERNIKA. 17:00.
- Mendi-Alberdi III.a / Armendariz-Goia
- Uriarte-Aranburu / Konpa-Felix
- Bereikua-Castro / Etxalus-Goitia.

Juan Rekalde finalerdietara

E. Telleria / **Donostia**

EUSKAL HERRIKO buruz buruko pala txapelketako finalerdietako ligaxkan arituko da Juan Rekalde iruindarra. Atzo lortu zuen Bilboko Deportivon txartela, Jon Torreri 35-20 irabazita, eta Oscar Insausti, Juan Pablo Garcia eta Javi Iriondorekin batera ariko da. Ligaxka asteartean hasiko da, Deportivon bertan. Juan Pablo errioxarrak eta Javi Iriondok abiatuko dute. Guztiek guztien kontra jokatuko dute, eta bi onenek jokatuko dute finala, abenduaren 11n.

Atzo Rekaldek eta Torrek jokatutako partidua erabakigarria zen. Bina partidu irabazita zetozen biak, baina Juan Rekalderen kolpea, sasoia eta, batik bat, sakea nagusitu ziren Torreren esperientzia eta baliabideen kontra. 17nako berdinketa arte baino ez zion eutsi Torrek Rekalderi. Hortik aurrera aldeak handitzen joan zen etengabe Rekalde irabazlea, eta ez zuen Torrek harrapatzerik izan. Ez zen zeregin erraza, nafarrak bizkaitarrari saketik 12 tanto sartu zizkiola kontuan hartuta. Torrek berak lau tanto egin zituen saketik eta falta bat.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
Kultura Sailak diruz lagundutako egunkaria